



Segurtasun neurri bereziak gerraren aurrean

ESTHER ZARRAUA / DONOSTIA

Frantzia eta Espainiako gobernuak segurtasun neurri bereziak hartu dituzte, Iraken aldeko talde arabiarrek eraso terroristak egingo dituzten beldur bait dira. Bai Frantziak, eta baita Espainiak ere Segurtasun Indarrak jarri dituzte Golkoko gerran parte hartzen duten herrien egoitza diplomatikoak, interes estrategiko enpresak eta base militarrik zaintzen. Mugak dira polizia-aren kontrol handia duten beste puntu batzuk, eta Espainiako Gobernuak arabiar herrietatik datozenak zergatik eta zertara datozen ondo ikertzeko agindua eman duen bitartean, Frantziak galerazi egin die irakiar herritarrei Frantziaren sartzeari.

● Poliziak babesten zituen Madrilén kokatutako Irak, EEBBak eta Israel-eko enbaxadetak giroa lasaia zen. Irak-eko enbaxadak bestalde, ez zuen inolako adierazpenik egin. Ildo beretik, Espainiako Kanpo Arazoetarako Ministroak kontaktu zuzenak izan zituen Golko aldeko espainiar enbaxadekin han bizi duten egoera ezagutu asmoz. Amman-en dagoen espainiar enbaxadoreak osteguneko goizaldean egoera normaltasuneko zela esan zuen, Arabia Saudia, Egipto eta Jordaniakoek ere gauza bera adierazi zuten, denak bat etorritik informazio urria zutela esaterako orduan.

● Rota eta Zaragozako base militarretan asteazkenetik ostegunerako gauean egondako mugimendua «ohizkoa» izan bazen ere, Cadiz-eko Moron-ekoan eta Torrejon de Ardoz-ekoan ez zen hala izan. Torrejoneko bizilagunek esan zutenaren arabera, bost minutuero irten eta lurra hartzen zuten hegazkinen zarata entzuten zen. Bertako irakaskuntza er-tainetako institutoetan ez zuten eskolarik izan atzo, ikasleek greba egin eta basearen aurrean manifestazioa egitea erabaki zutelako Golkoko istiluaren aurrean beraien desadostasuna erakusteko.

Zortzi diputatu eta hiru senadore suspenditu alderdi sozialistak

Indarra erabiltzearen aurka azaldu ziren Legebiltzarreko bilkuretan

Zortzi diputatu eta hiru senadore suspenditu egin dituzte alderdi sozialistaren militantziaz joan den asteazkenean Golko Pertsikoan indarra erabiltzearen aurka botoa eman zutelako, Pierre Mauroy Lehen Idazkari sozialistak adierazi zuenez.

J.M.S./L.E. / DONOSTIA

Suspenditutako hamaika legebiltzarkideen artean Max Gallo eurodiputatu aurkitzen da, 75 intelektua-len taldeko partaidea. Talde honek gerraren aurkako deialdia egin zuen eta bakearen aldeko manifestaldia konbokatuko. Defentsa ministrartzako ordezkaria den Gilberte Marin Moskowitz diputatu ere hamaika horien artean aurkitzen da. Jean Pierre Chevenement Defentsa ministroak ere gerraren aurka botatu zuen, baina bere suspentsioa ez zuten iragarri.

Diputatu eta senadore horiek Asanblada Nazionalan eta Senatuan egindako bozketetan aurka jarri edo abstenitu egin ziren Michel Rocard lehen ministroak egindako proposamenean. Hamaika legebiltzarkideek «ezingo dute ordezkatu, hi-



Pierre Mauroy arduratu da «pertsonalki» suspentsioaren erabakiaz.

tzegin edo idatzi gehiago alderdi sozialistaren izenean» esan zuen Mauroy-ek. Erabakiaren ardura «pertsonala» hartu zuela esan zuen.

ERASOAK FRANTZIAREN AURKA Frantziako Kontsulatuaren Constantina-n, Aljeretik ekialdera 400 kilometrotara, eraso zuen atzo partaidetza frantse-

saren aurka protestatzen zuen talde batek. Lehendabiziko salairuan sartu ziren, baina poliziak aurre egin zuten segituan kanpora bidaliz. Kalteak eta erasotzaileen ideologia politikoa ez dira ezagutzera eman.

Ehundaka gazte aljeriarrek erasotu zituzten Air Franceren delegazioa eta Frantziako zentro kulturala Constantinan, eta bandera frantsesa

erre. Estatu Batuen aurkako oihuak egin eta Aljeriak herri mendebaldearreko hidrokarburoak ez saltzeko eskatu zuten Iraken alde jarritz.

MITTERRAND GERRA ARDURADUN Mitterrandek gerraren ardura guztia bere eskuetan dauka. Protesta eskasak ezik, batasun lortu du bere inguruan. Sorpresa gutxi da gertakariari begira Frantziaren. Atzo hasi fasea zehazki argitaratu zen eta jendearen erreakzioak onesten baten inguruan dira gehienak. Adostasun politiko orokorra alda daiteke, ekintza militarrik gaizkituko balira frantsesentzat, eta ondorio ekonomikoak gogorrrak balira. Atzo eguerdian Roland Dumas ministroak zion, «Saddam Hussein bere populua gerraren zorigaitzean eror arazteko ardura grabea hartu du», gehiengoaren ikuspegia da. Elysée-ko Jauregian dira Frantziak eraman ekintza militarren aginduak hartzen. Mitterrandek asteazken gaueko 22.15etan gerran sartzeari ofizialki erabaki geroztik. Han dira Chevenement Defentsarako Ministroa, Joxe Barne Ministroa eta Schmidt Generala, armadako Estatu Nagusiko burua bilduak dira, Gerra Kontseilua osatuz.

Felipe Gonzalezek lasaitasuna eskatu zuen une larri hauetan

MADRIL

Felipe Gonzalez lehendakariak lasaitasuna eskatu zion herri espainiarri une larri bat delako, nahiz eta gerra arriskua ez izan Estatu espainiarrean. Seguritate Plan bat jarri dela martxan iragarri zuen Ministro Kontseiluaren bukaeran. Energia neurriak beharrezko diren garaietan ezarriko direla esan zuen.

Ustezko eraso terroristen aurrean prestatu da Seguritate Plan hori. Gerra piztu ondoren, Golkoan dauden unti espainiarren arriskua «lehen

baino txikiagoa» dela esan zuen Gonzalezek, «Marinel espainiarren ez dago arriskurik». Etengabeko kontaktua dagoela Golkoan dauden fragata eta bi korbetekin jakinarazi zuen. Espainiak ez du bere jarrera aldatuko eta gatazkan zuzenki ere ez du parte hartuko. Nazio Batuen erabakiak betearazteko laguntza logistikoa eta humanitarioa eman jarraituko duela esan zuen lehendakari sozialistak Moncloa Jauregian egindako Ministro Kontseiluareñ ondoren.


Gaur egungo egoeraren errudun-

tzat Saddam Hussein akusatu zuen eta operazioak Kuwaitetik erabat erretiratu arte ez direla amaituko segurtatu zuen. Gerra lehenbaitlehen amaitzearen itxaropena agertu zuen «ahal den hildako gutxienekin».

Iraken «erakzio positiboa» kalte gehiago ez izateko balioko lukeela esan zuen. «Inoiz ez dira desagertzen komunikazio zubi guztiak» erantzun zuen harreman diplomatikoetaz egindako galdera bati.

Barne seguritatea, irakiarren atentatuen aurrean, Gobernuak kezkatu egiten duela baieztatu zuen, baina biztanlegoari «lasaitasuna» eskatu zion, beharrezko neurriak hartu direlako. «Janariaren banaketa bezalako arazo psikologikoen» ez dute Gobernuak kezkatzen. Alor horretan «inongo arazorik» ez dagoela esan zuen eta populazioaren artean «urduritasunik» ez dela sortu behar, bai ordea «ezohizko salmentak egin nahi dituzten espabilatu batzuen abusuak ebitatu».


Talde radikalak martxan jar ditzaketen lisker publikoetan parte ez hartzeko eskatu zion Gonzalezek espainiarrei, segurtasun baldintzak zalantzan jarri nahi dituztelako. Buzuragi parlamentarioekin telefonoz hitzegin zuela ziurtatu zuen eta gaurko osoko bilkuran Kongresuak



Felipe Gonzalez.

Espainiaren jarrera apoiatuko duela espero du. Alderdi politikoen jarrera errespetatuz «Iraken jokaeraren analisi falta, Kuwait inbaditu zuela ahaztuz» nabari dela esan zuen. Bakearen aldeko lana jarraitu behar da Gonzalezek ustez, oreka bilatuz.

«Inoiz gatazka bat ez duela hainbeste baztertu Komunitate Internazionalak baieztatu dezaket, konponbidea indarrez ez zuten nahi» adierazi zuen Gobernuak lehendakariak. «Une delikatu eta dramatikoak da. Saddam Husseinaren eromena nabaria eta indarraren erabilera ilegiti-moak indarraren erabilera ilegiti-moaren menpean jartzea ebitatu du» erantsi zuen. Operazio militarrik ez dira geldituko Kuwaiten as-katasuna ebidentea izan arte, Irakeren erretiratzea ez badu erabakitzen, Gonzalezek zehaztu zuenez.



OBRA GRAFIKOAREN EDIZIOA

LITOGRAFIA
GRABATUA
SERIGRAFIA

PESCADERIA, 11
TFNA.: (943) 39 38 93
FAXA: (943) 40 00 50
20110 PASAI SAN PEDRO
(Gipuzkoa)



TOLOSAKO UDALA
IRAGARKIA

Iragarki honen bidez interesatuei jakin erazten zaie, Amaroizko Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioarako eskaerak aurkezteko epea datorren Otsailaren 14ean, arratsaldeko ordubietan amaituko dela. Tolosa, 1991ko Urtarrilaren 17an. ALKATEA